



BEBOE!

JOLASA



Eze Collantes
Irudiak:
Ibai Gandiaga





IRITSI DA FAMILIA ETA LAGUN ARTEKO
JOKO ZIRRARAGARRIA! ERAKUTSI
ZURE KIDEEI AZKARRENA ZARELA!

Jokalariak

Gutxienez bi jokalarik parte hartu beharko dute partidan. Jokoak mahaiburu bat beharko du, jokalarietako bat edo beste bat izan daiteke.

Edukia

Jokoaren kaxan honako elementu hauek daude:

-  -Hareazko erlojua
-  -Koloretako modulu karratuak (500 pieza)
-  -Koloretako modulu biribilak (15 pieza)
-  -Karratutxoz osatutako kartoizko fitxak (100 pieza)

Koloretako modulu karratuek inskripzio bat dute. Inskripzio horren arabera sailkatzen dira modulu hauek. Moduluak osoak edo erdiak izan daitezke. Honako inskripzio hauen arabera sailkatuta egongo dira modulu karratuak: EG, JA, SU, L1, L2, LN, W1 eta W2.

Koloretako modulu biribilek hiru neurri izango dituzte, hiru moduluko erradiokoa, bi modulu eta erdikoa edo modulu eta erdikoa. Kartoizko fitxak forma desberdineko perimetroa dute, baina hiru azalerakoak izango dira:

60 modulukoa, 70 modulukoa edo 90 modulukoa.

Jokoaren helburua

Ahal den pieza gutxienarekin unitate bat antolatzea. Mahaiburuak proposatzen duen fitxaren arabera, jokalariek moduluen antolaketa bat proposatuko dute.

Prestalana

1-Mahaiburuak fitxa mota berdin bana emango die jokalariei.

2-Mahaiburuak partidaren iraupena erabakiko du (hareazko erlojuari bi, hiru, lau... buelta).

3-Jokalari bakoitzak ehun pieza karratu eta hiru biribil edukiko ditu (erradio bakoitzetik bat). Ehun pieza karratu horien barne, hauexek:

- 20 EG modulu
- 15 JA modulu
- 15 SU modulu
- 10 L1 modulu
- 10 L2 modulu
- 15 LN modulu
- 5 W1 modulu
- 5 W2 modulu
- 5 modulu inskripzioz

ziorik gabekoak Modulu osoak edo erdiak izan daitezke.





Jokoa

Mahaiburuak moduluak eta fitxak banatu dituenean, jokari hasiera emango zaio. Jokalari bakoitzak bere unitatea eratzeari ekingo dio. Unitate horietako bakoitza azpiunitatez osatuta egongo da, EG, JA, SU, L1, L2, LN, W1 edo W2. Azpiunitate horiek elkarren artean erlazioz osatuta egon beharko dute.

Irabazlea

Albait fitxa gutxienarekin unitatea osatu duen jokalariek irabaziko du. Mahaiburuak ezarritako epea gainditzen badute jokalari guztiek, ez da irabazlerik egongo.



Jokalegeak

1-Fitxaren araberakoa izango da unitatea.

-Fitxa 60 modulukoa bada, EG, JA, SU, LN eta W1 azpiunitatez osatutako unitatea eratu beharko dute jokalariek. Gutxienez EG+JA+SU=18 modulu, EG+JA=14 modulu edo JA=7 modulu, LN=10 modulu eta W1=3 modulu izango dituzte.

-Fitxa 70 modulukoa bada, EG, JA, SU, LN, L1 eta W1 azpiunitatez osatutako unitatea eratu beharko dute jokalariek. Gutxienez EG+JA+SU=20 modulu, EG+JA=16 modulu edo JA=8 modulu, LN=10 modulu, L1=6 modulu eta W1=3 modulu izango dituzte.

-Fitxa 90 modulukoa bada, EG, JA, SU, LN, L1, L2, W1 eta W2 azpiunitatez osatu-

tako unitatea eratu beharko dute jokalariek. Gutxienez EG+JA+SU=22 modulu, EG+JA=18 modulu edo JA=9 modulu, LN=10 modulu, L1=6 modulu, L2=8 modulu, W1=3 modulu eta W2=2 modulu izango dituzte.

2-W1, W2, eta SU azpiunitateak izan ezik, beste guztiek albo bat libre eduki beharko dute gutxienez.

3-EG, JA eta SU azpiunitateen baturaren gainean 3 moduluko erradioa duen fitxa biribila sartu ahal izango da. SU azpiunitatearen gainean 1,5 modulukoa, eta L1, L2, LN azpiunitateen gainean 2,5 modulukoa.

4-L1, L2, LN azpiunitateen eta gainontzekoen artean inskripzioarik gabeko moduluak tartekatuko ditu jokalariaiek.



BE B.O.E.! jokoak oso erakargarria badirudi ere, arkitektura egiteko erabat KALTEGARRIA izan daiteke. BE B.O.E.! jokoak EZ ditu biltzen, "bizitzan" garatu behar diren hainbat parametro. BE B.O.E.! jokoa eskuratu nahi baduzu:

www.ueu.org

